

Goierri tarra

324. zenbaki 2007ko uztailak 6



Goierri ere badabiltza

IDIAK DEMAN

ARGI
OPTIKA

Nafarroa etorbidea, 14 Beasain
T 943 88 31 10 www.argioptika.com

E W M E
zure ikusmena zainduz
zure estetikaren oinarrizko osagaia

PRADA Salvatore Ferragamo EXTREME ROMEO GIGLI



reforma

berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
Instalazio industrialak eta etxeokak, eguzki-energia.
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
Tel.: 943 653 307
Tel. / Fax: 943 650 520
E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
Fax: 943 675 421
E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



POLIURETANOZKO LEIHOAK




Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

*I. Fdez Ornaburu Dra.
(Medikuntza estetikoan masterra)
A. Ramirez Baigorri Dra.*

Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51

Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN



Moldatu zure gorputza,
KENDU LEKUKO GANTZAK
KIRURGIARIK GABE,
ultrasoinuen
bidezko lehen teknika
ez erasokorraren bidez

NOBEDADEA


ULTRASHAPE
CONTOUR I
Metodoa

R.P.S.:32/04

BERTSOTAN



Aitzol Barandiaran

Dopina

Justiziak injustizi
txirrindularitza auzi
txikleka janda ezin delako
Tourrik irabazi,
akusatu, galarazi...
sorgin-ehizan dabil UCI
kirolariek horrelakorik
ez dute merezi.

Dopatzea lege-hauste
bakarra denik ez uste
gorbatadunak zaku berean
sartuko nituzke,
zer dela eta hainbeste
kolpetik "izen on" eske
garbi daudenak ere zikintzen
baldin badituzte?

Doinua: "Mendian gora haritza"

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbialde plaza, 7 - behea

BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetza: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

**Goierritarrak ez du bere
gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.**

Goierritarra

diruz laguntzen duten
erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

4. Iritzia: Xabier Mendiguren Elizegi.

5. Ingurugiro txokoa: 25 urte
Lemoizen itxieratik.

6. Euskara txukuntzen: Denetik (I).

8. Errezeta: Bakailao hanburgesa,
bizkaitar saltsarekin.

Aholkua: 'Piorrea': zer da eta nola
tratatu.

9. Erreportajea: Idi probak Goierrin.

14. Erreportajea: Goierri koloretsua:
41.373 biztanleetatik 2.359
atzerritarrak dira.

17. Gazteleku: Mikel Etxenike.

20. Esperientziaren leihoa:
Esperientziaren eskola.

22. Garai batean...: Ataungo
organoa.

24. Iragarki laburrak.

26. Argazki zaharra.



EUSKO JAURLARITZA




GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Xabier Mendiguren
Elizegi

*Ezin esango
dut herri osoa
argi eta garbi
golfaren kontra
agertu dela,
baina inork
ezingo du esan
herriak
golfaren
proiektua
berretsi duela
bere botoen
bitartez.*

Oianguko parkea: erreferenduma orain!

Zegamarra izan behar al da Aizkorri maitatzeko? Lazkaotarrek bakarrik al dute Lakaomendi estimatzeko eskubidea? Abaltzisketan jaioa behar al du Larraitz ondo zaindua nahi izateko? Horiek denak, neurri batean, goierritar guztion ondare eta aberastasuna direla uste baldin baduzue, onartuko didazue, halaber, Oianguri buruz hitz egiteko eskubidea, beasaindar batek ordiziarren kontuetan zertan sartu ez daukala aurpegiratu gabe.

Urteak daramatzagu kontu honekin bueltaka, baina ezagutzen ez duenik baldin bada, labur azalduko dut, ahalik eta objektiboen: aurreko udalak Ikena izeneko enpresa bati utzi zion, diru kopuru baten truke, Oianguren parke publikoaren esplotazioa; enpresa horrek asmoa du parkea itxuraldatzeko, zati bat jende guztientzat zabalik utziz, eta beste bat erabilera pribaturako: golf-zelai bat eginez, batetik, eta paint-ball jokorako eremu bat, bestetik.

Proiektua jakinarazi zenetik hasi zen herritar-talde zabal bat horren kontrako lanean: jendea kontzientziatuz, alegazioak eginez, bide baketsu eta errespetuzkoak erabiliz betiere. Horren aurrean, herriko agintariak gehiengo zutela esaten zuten, eta beraia zela erabakia. Gauzak horrela, udala aldatzea besterik ez litzateke gedituko, jende gehiena pribatizazioaren kontra dagoela erakusteko eta parkearen izaera publikoa errespetatzeko.

Egin dira hauteskundeak. Mila gauza jokatzeko eta erabakitzen ziren bertan, ez Oianguren parkearen etorkizuna bakarrik, baina hori ere bai. Eta lehenengo indarra,

1.100 botorekin, ANV izan da, pribatizazioaren aurka azaldu den alderdia; bigarren eta hirugarren, EAJ ia 900 eta PSE ia 800ekin, biak ere Ikenarekiko akordioaren aldekoak; laugarrena EB-Aralar, 765 boto izan dituen, hau ere pribatizazioaren kontrako. Matematika askorik jakin gabe ere, aise ikus liteke indarrak parekatu daudela. Ezin esango dut herri osoa argi eta garbi golfaren kontra agertu dela, baina inork ezingo du esan herriak golfaren proiektua berretsi duela bere botoen bitartez.

Hala ere, hemen dator koxka: ANV-erentzako botoak ilegalak dira, Madrilgo justiziaren erabakiz; eta berez, jendearen iritzia hutsa errespetatuta, zinegotzi-kopuru berdintsua izango litzatekeena, orain, Alderdien Legearen ondorioz, guztiz desproporzionatua gelditzen da, parkearen pribatizazioaren aldeko gehiengo garbi batekin.

Ez naiz hasiko hemen Espainiako gobernu kritikatzen; irakurle bakoitzak izango du bere iritzia Zapateroren politikaz, Imazen jarreraz, Batasunakoen jokabideaz... Egunero telebista eta egunkari guztietan ikusten ditugun kontuak dira horiek denak. Sinpleagoa da hemen esan nahi dudana: demokratikoa izan nahi baldin badu, legez ezarri den Ordiziako udala behartuta dago, nik uste, gai arantzatsu honen gainean erreferendum bat antolatzera, ordiziar guzti-guztiei berdintasun egoeran beren iritzia eman dezaten, eta horren arabera erabaki nork gozatuko duen eta nola kudeatuko den herritar guztiena den ondasuna.



Egurrezko lehioak, kontraleihoak, ateak eta eskailerak neurria.



**JANTZI ZURE ETXEA
EGURREZ**

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU



**Garbiketa
Zerbitzu
Integrala**

Enpresen mantentzea

Tel./Faxe: 943 188 194 Mug.: 696 999 117
Kale Nagusia, 25, 1. esk. IDIAZABAL

25 urte Lemoizen itxieratik 25 urte nuklearrik gabe!

Lemoizko zentral nuklearra itxi zenetik 25 urte igaro ondoren, haren mamua gure gainean hegan dugu berriro ere. Lemoiz ote dator? Nuklearrak?

1972an hasi ziren zentrala eraikitzen, eta obrak 1984an betiko gelditu ziren. PSOren Gobernuak erabakitako luzamenduaren ondorioz izan zen, eta luzamendu hori hilero ordaintzen ari gara elektrizitate-ordainagiriez. Antzeko proiektu batzuk sortzen ari ziren unean bertan geldiarazi ziren: Debako eta Izpazterko zentralak euskal kostalde nuklearra osatuko zuten; beste zentral bat zegoen aurreikusita Tuterarako.

Borroka ekologista eta antinuklearraren garaipen itzel hau Euskal Herriko mobilizazio handiari esker, lortu zen, eta mobilizazio hartan Lemoizen inguruko herritarren eta udalbaitzen partaidetza nabarmendu zen.

Borrokaren mugarren artean aipatu behar dira 'Comisión de Defensa de una Costa Vasca No Nuclear' delako taldeak bildutako 150.000 sinadura, 1976an Plentziatik Gorlizera martxan joateko lehenengo aldiz bildu ziren 50.000 pertsonak, Bilbon 1977an 150.000 pertsona bildu zituen manifestazio handia. Horiek eta beste manifestazio jendetsu batzuek eta, orobat, itzalaldiek, argiaren ordainagiri ordaindu gabek, itxialdiek, eztabaidek, langileek zentralako obretan lantzean behin egindako sabotajeek... guztiek he-



zurramitu zuten herritarren protesta, azkenik plan nuklearrak makurrarazi zituen protesta hain justu.

Bederatzi heriotza ere egon ziren: ekintzaile antinuklearrak, langileak, Lemoizko zuzendaritzako kideak, ETAko militanteak... Haien artean, Gladys del Estal, Donostiako ekintzaile antinuklearra, poliziak eraildu Tuteran 1979an, Energia Nuklearraren kontrako Nazioarteko Ekintza-eguneko kontzentrazio-festa batean.

Baina zentralaren eraikin handi eta huts haiek zutik daude oraindik ere, eta haien itzala hegan dugu gure etorkizunaren gainean. Izan ere, behin baino gehiagotan aipatu da Lemoiz zi-

klo konbinatuko zentral termiko bihurtzeko aukera.

Gaur egun, plan nuklearrak munduko hainbat tokitan ia betirako gelditu ondoren, energia nuklearra mintzagai dugu berriro ere, berotegi-efektuak eta klimaren aldaketak eragindako kezkak bultzatuta.

Zer egin behar dugu noizbait itsasbazterra izan zen toki babesgabe hura berriro geurea izan dadin? Zer egin aspaldiko mehatxuak salbazio-proiektuak balira bezala itzultzen badira? Galdera horiek eta beste batzuk gure erantzunaren zain daude: aurpegi eman beharko diegu, denon artean berriz ere.

Ekologistak Martxan

***Gladys del Estal, Donostiako
ekintzaile antinuklearra, poliziak
erail zuen Tuteran 1979an***

JAKIN BEHARREKOAK

Elikadura Subirotasuna:

elikadura eta nekazarierduak finkatzeko eskubidea, zentzu hortan politikak erabakitzeko eskubidea, kulturalki eta nutrizionalki egokiak diren jakiak kontsumitzeko eskubidea eta bertako produkzioa kanpotik datozen inportazio merkeen aurrean (ekoizpen kostuaren azpitik dauden salneurritan askotan) babesteko eskubidea, nekazariak duintasunez lan egin eta bizitzeko eskubidea. 1995 urtean sortu zuen kontzeptua Via Campesinak.

Atila Sariak izendatu ditu Ekologistak Martxan. Ingurugiroaren suntsitzean laguntzen duten pertsona, proiektu eta abarren artean irabazleak hauek dira. Atila 2007 Gipuzkoa Foru Aldundiari eman diote berak bultzatzen dituen proiektuengatik (AHT, Pasaiko portua, errauskailua,...). Atilaren Zaldia 2007 Luis Mari Oiarbide izendatu dute. garapen jasangarriko Foru Aldundiko ordezkaria. Sari hauekin hausnarketara dei egin nahi dute.

Plastikoz egindako gaiek

luzaroan irautea dute itsasoan zein lehorrean, eta horrek arazoak sortzen ditu ingurumenean. Alabaina, zenbait museotako arduradunek oso bestelako ikuspegia emango lukete, honen inguruan. Izan ere, plastikozko artelanak hondatzen hasiak dira, eta ez dakite degradazioa nola galarazi.

Denetik (I)

Maizpide
euskaltegia

Kaixo, lagunok! Gaur entsalada berezia izango dugu. Beraz, erne!

Balioa/balorea

Euskaraz ez dira gauza bera. Erreparatu ondorengo esaldiak:

✕ Zilarrezko txanpon zahar horien benetako balioa (= **prezioa**, **salneurria**) zein den jakitea zaila da. **Edo**: Txanpon zahar horiek benetan zenbat balio duten jakitea zaila da.

✕ Balorea (= **adorea**) behar du gizonak hori egiteko! Dedio!

Baikorra/ona

Behar baino gehiagotan erabiltzen dugu **baikor** hitza. Kontua da **pertsonekin** **bakarrak** erabili behar dugula!

✕ Gure izeba Maritxuk Euskal Herriko gatazka berehala konponduko dela uste du. **Baikorra** da, gero! (**zuzen**)

✕ Euskal taldeen emaitzak **baikorrak** izan dira (**oker**).

✕ Euskal taldeen emaitzak **onak** (itxaropentsuak, positiboak) izan dira (**zuzen**).

Oharra: **Ezezka** jarritz gero, gauza bera!

✕ **Ezkorra** da, horratik, gure aita! Matematiketan, fisikan, kimikan eta ingelesean emaitza **txarrak** izan ditudala eta... ez da, bada, gaizkile biburtuko naizela esaten bazi!

Konpromiso/konpromezu

Konpromezu hitza, nahiz eta maiz antean erabiltzen dugun (eta askotan **konpromiso** baino txukunagoa delakotan), aurrerantzean alde batera utzi beharko dugu.

Herri-mailako hitz hau Iparraldean ez dela ezaguna gogorazi behar da.

Bestalde, **konpromisoa hartu** esan ordez, **hitz eman** esanez gero, askoz txukunago arituko gara!

Motor/motore/moto

Euskaraz lehena bakarrik da zuzena! **Makina** nahiz **bi gurpleko ibilgailua** izendatzeko! Hona adibidea:

✕ Motor horren motorrak begazkinerako ere balioko luke!

Gaztelaniazko **motora** izendatzeko, berriz, **txalupa motoreduna** esango dugu.

Itsusia naiz,
baina...
oso baikorra!



Zuzendu, behar izanez gero...

1. Hi, morroi, orain ere konpromiso ederrean jarri nauk!
2. Neska horren balorea ikusteko zegok!
3. Hauteskundeen ondoren, alderdi politiko guztiek egiten duten emaitzen balorazioa baikorra izaten da.
4. Harley Davidson etxeko motoak dira Peruri gehien gustatzen zaizkionak.

ZUZENKETAK: Bigarrenengoan balioa behar du; hirugarrenengoan, habardurak habardura, emaitzak balekoizai emaitzen dituzte (edo denak pozik emaitzekin); laugarrenengoan, berriz, motorrak.

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako
mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko:
943 08 55 60

Faxa: 943 08 55 61

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN



- Pintxo hotz eta beroak
- Ogitartekoak

Legazpi kalea, 3

ORDIZIA

☎ 943 16 03 04

MULTIOPTICAS



**EGUZKITAKO
BETAURREKO
GRADUATUAK 69€***

Eguzkiaren
distirak modan
jartzen zaitu

* Eskaintza hau ondokoentzat da baliagarria: Beslayt 1.5 Sol lente organikoa; Cat: 3 (kalore berde, marroi edo gris degradatu gabea); zilindroa +2; esfera +2tik -4ra bitartean); "Bonardi Sol Graduado" bildumarentzat.

R.P.S. Nº 190/04 I.L.G.

J. Carlos Guerra, 1
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

C/ Nueva, 15 - GROS
Tel.: 943 32 66 49
DONOSTIA

Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

Koldo Mitxelena, 7
Tel.: 943 51 78 11
ERRENTERIA

Mendibil M.G.
Tel.: 943 63 99 01
IRUN

J.M. Barandiaran Enp.
Tel.: 943 88 99 88
ORDIZIA

San Frantzisko, 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA

ZUK ZEUK EZAGUTU

+tu

g e h i t u

EUSKAL HERRIKO GAY, LESBIANA, TRANSEXUAL ETA BISEXUALEN ELKARTEA

Arrasate 51, 3. esk. Donostia 20005
943 468 516
www.gehitu.net info@gehitu.net
Informazioa eta Laguntza (InfAsis) 902 200 096
infasis@gehitu.net



Iban Mate
Dolarea jatetxea
Beasain

Osagaiak:

- Bakailaoa
- Tipula
- Arrain salda
- Perrexila
- Arrautzak
- Ogi birrindua
- Azenarioa
- Tomatea
- Piper txorizeroa

Bakailaoa garbitu eta txikitu, sortzen diren hondarrak salda egiteko aprobetxatu litezke.

Txikitutako bakailaoari arrautza eta perrexila gehitu eta erreserbatu.

Tipula olio ugaritan gorritu eta ogi birrindua bota loditu arte. Behin hoztu denean bakailaoa gehitu eta gorde.

Geroago, hanburgesa itxura eman, arrautza irine-tan pasatu eta frijitu.

Saltsa egiteko, tipula eta azenarioa egin gehiegi gorritu gabe, tomatea, arrain salda eta piper txorizeroa gehitu, birrindu eta txinotik pasatu.

Saltsa ontzi batean jarri eta bertan hanburgesak irakin.

‘Piorrea’: zer da eta nola tratatu

AHOLKUA

Ahoan gehien ematen den gaixotasunetariko bat dugu periodontitisa, jende artean “piorrea” bezala ezaguna. Ezjakintasunaren ondorioz, jendeak pentsatzen du beraien hortzak galtzeagatik ez dela ezer gertatzen, protesis arrunt bat ipini eta beraien arazoa bukatutzat ematen dutelarik. Aldiz, gaur egun, lehen ez bezala, arazo hauetako aurre egiteko tratamenduak daude.

Honela antzeman daiteke: entzietan odola, hortzetan sensibilitatea, entziaren eta hezuraren jaitiera, aho zapore txarra eta hortzen mugimendua.

Zerk eragiten du?

Garbiketa ezegokia, tabakoa, aldaketa hormonalak, haurdunaldia, medikamentuak eta diabetesa bezalako

gaixotasun orokorrak.

Erretzaileen kasuan ez dute nabarmenduko entzietatik odola isurtzen dutenik kearen eraginez. Ondorioz gaixotasunak aurrera jarraitzen du norbera konturatu gabe.

Nola tratatu?

Hiru etapa nabarmentzen dira; bakoitzari dagokion tratamendua ezarrit.

1- Hasierako etapa: Gingibitisa. Kasu honetan entziaren inflamazioa dugu sarroaren eraginez eta berarekin odola. Profesionalak egindako garbitasun batekin nahikoa izango litzateke.

2- Erdiko etapa: Hasierako periodontitisa. Hemen, gaixotasunak garrantzi gehiago hartzen du eta hezurra galtzen

hasten da. Hortaz, atal honetan garbiketa sakonagoa egiten da entziaren azpitik anestesia erabiliz.

3- Azken etapa: Periodontitis larria. Gaixotasunak, puntu honetan, odola erraz aterarazten du eta hezurra hain galdua dago, non hortzak mugitzen hasten direla beraien galera eraginez.

Kasu honetan, kirurgia beharrezkoa da entziak atxatu eta sakon garbitzeko.

Nola mantendu?

Tratamenduaren atal garrantzitsuenetariko bat da. Norberak garbiketa egoki bat izan beharko du hortzetako pasta eta enjuage espezifikoko batekin; alde batera utzi gabe espezialistaren jarraipenak.



Nerea Larrea Oiarbide
Odontologo zirujaua
Beasain

izal

IMAZ eta CONTRERAS

☎ 943 187 049

☎ 943 187 045

Ondramuño
baserria
IDIAZABAL

PINTURA eta PAPERGINTZA

LEIAR

KRISTALDEGIA

ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua 2/g

☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea

☎ 943 88 60 70

BEASAIN



Idiak deman

Igeldo, Mujika, Retegi eta Soraluze dabilta idiekin

Goierrin idi-probetan tradizio handiegirik ez badago ere, badira idiak hazi eta hezten aritzen diren goierritarak: Ezkioko Axier Zubillaga, Gabiriko Karlos Mujika eta Jose Inazio So-

raluze eta Ormaiztegiko Imanol Retegi. Idi-probetan aritzen dira. Idien eta idi-proben berri Gabiriako Kortako Soraluzek eman digu, gai honen inguruan egon daitezkeen eztabaidak uxatu nahirik.



ANZIZAR, S. A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea





Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**
www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxe.: 943 88 48



xetai

www.xetai.net
Armairuak · Altzariak
Osagarriak

Tel.: 943 88 43 84
Oriamendi, 30
BEASAIN

LAGO



Axier Zubillaga, 'Igeldo'

Jaiotzez igeldoarra da eta 8 urterekin etorri zen Ezkiora bizitzera. Agerre Haundi base-
rrian bizi da. Zaletasuna etxetik datorkio, bere aita behiekin ibiltzen zen, "behi onak zi-
tuen". Axier utzita egon zen, baina orain dela 4 urte kapritxoa zuen eta bi idirekin hasi
zen. Orain bi pare ditu eta gazteak beste pare bat. Zaletasuna da berea eta idiak man-
tentzeko eta afariren bat egiteko adina ateratzen badu konforme da. Inguruko probetan
eta erakustaldi batzuetan parte hartzen du.



Karlos Mujika

Duela hiru-lau bat urte hasi zen idiekin, Jose Inazio Soraluzeren "erruz". "Idi batzuk ba-
zituela eta hartzeko esan zidan eta halaxe hasi nintzen", adierazi du Eizmendi baserriko
Karlos Mujikak.

Gabiriako Kortako Jose Ina-
zio Soraluzek urte asko da-
ramazki idien munduan, bai
antolaketan, bai hazten, bai
idi-demetan parte hartzen.
Jose Inazio Soraluzerekin
batera, Goierriin, gaur egun,
lau goierritar dabilta idie-
kin lanean: Gabiriako Karlos
Mujika, Ezkio-Itsasoko Igel-
do eta Ormaiztegiko Retegi.
Jose Inazio Soraluzek eman
dizkigu idiei eta idi-demei
buruzko xehetasunak.

Etxean beti ezagutu izan
ditu idiak Jose Inazio Sora-
luzek. "Lehen idiak basora
lanera joateko izaten ziren.
Aitak bi idi pare edukitzen
zituen eta haiek basora joa-
ten ziren. Dirua nonbaitetik
atera behar izaten zen. Le-
hen baserri guztietan izaten
zen idi-parea. Goldatzeko
ere erabiltzen zen idi-pa-
rea", gogoratu du.

Kapritxoa

Garaiak asko aldatu dira eta
gaur egun idiak edukitzea
"lujoa bezala da. Jendeak
tailerrean lan egiten du, ba-
serrian lan gutxiago egiten
da... Idia animalia dotorea
da eta kapritxoa izaten da
gehiago. Jendeari gustatu
egiten zaio idia ikustea.
Oso garesti ateratzen da eta
jendeak kapritxo bezala
edukitzen du. Idiak, hazi, ja-
na eman, entrenatu... eta
ona ateratzen den ala ez,
hori beste kontu bat da.
Gazteak ere ari dira base-
rrietan idiak jartzen", zehaz-
tu du gabiriarrak.

Soraluzek duela 14 urte
erosi zituen idiak. Aurretik
ere aritzen zen Azkoitin, idi-
demak antolatzen. "Galizia-
ko Portora joan nintzen. 20
idi gazte ekarri nituen. Por-
totik Euskal Herrira jendeak
idi asko ekarri ditu, batez
ere Bizkaia aldera. Sanabre-
sak dira, Portokoak. Zamora
aldetik ere ekartzen dituzte
baina idi onenak atera dire-
nak, Portokoak izan dira.
Oso prozesu luzea izan da
eta ona etortzea zaila da.
Askok gustatu behar da idie-
kin aritzeko".

Prozesu luzea

Plazara atera aurretik dena den, lan luzea egin behar izaten dute idien jabeek. “Urte eta erdiko idiak, uzta-rrira lotzen hasten gara, poliki-poliki. Lehenengo uzta-rrian lotuta egoten ikasi be-har dute. Sokarekin lotzen diegu burua, erori ez die-zaion. Uztarriak 10 bat kilo izaten ditu. Bi urtera, uzta-rria jarrita eta atzean gupil txikidun gurditxo batekin, ibiltzen irakasten diegu. Ge-ro eta pisu gehiago jartzen joaten gara”, azpimarratu du Soraluzek.

Idiak probara ateratzeko sei bat urte behar izaten di-ra. “Gutxienik, idi bat plaza-ra ateratzeko, aproba bat-zuk egiteko, erakustaldiren bat egiteko, 6 bat urte behar ditu. Baina desafioren bat egiteko, zortzi bat urte be-har ditu idiak. Jendeak ez du nahi izaten hainbeste denbora itxoin. Nik 20 idi ekarri nituen eta batzuk sal-du egin ditut”, zehaztu du gabiriarrak.

Kintopekoa

Kintopekoa deitzen zaio le-henengo aldiz plazara ateratzen den idiari. “Batzuek sei urterekin aterako dira eta beste batzuek zortzirekin. Esan liteke, birjintasuna gal-tzea bezala dela kintopekoa izatea. Horregatik, martxo-an hasten da denboraldia. Debuta egiten dute, gero segidan ibiltzeko. Kintoa izaten da urte barrukoa. Ho-rretarako ez dago adin ze-hatzik”.

Zenbat urtera arte ibili daitezkeen, hori ere, idi ba-koitzaren arabera dago. Jo-se Inazio Soraluzeren esa-netan, “egurra emanda, as-ko ibilita, zortzi bat urtere-kin hasi baldin bada, lau-bost urte... Oso-oso idi onak izan dira, zortzi-hamar urte ibilitakoak. Baina orain ez da lehen bezalako idirik ateratzen. Lehengoak baso-an ibiltzen ziren eta zaildua-goak ziren”.



Imanol Retegi

Oiartuarra da Imanol Retegi eta betidanik ibili izan da idien artean, aitonarengandik ja-so zuen zaletasuna. 5 urte daramatza Ormaiztegin eta bi idi pare ditu, argazkikoa bat eta bestea gazteagoa. Harakina denez, denbora faltarekin ibiltzen da eta guztiz beharrezkoa du laguntzaileen lana. Argazkian berarekin dagoen Ramon Abasolo (biboteduna), Asier Agirre eta Jose Mari Soraluze aritzen zaizkio laguntzen.



Jose Inazio Soraluze

Etxean beti ezagutu izan ditu idiak, lanerako, eta duela 14 bat urte Galiziako Porton sa-nabres arrazako 20 bat idi erosi zituen, kapritxoz. Harrezkeroztik, idiak hazten eta hez-ten ari da gabiriarra. Idi-proben antolaketan ere urte asko daramatza.

Harriak

Idi-probetan, orduerdiko lanean, zenbat plaza egiten diren neurtzen da. Mugitu beharreko harria pisu ezberdinetakoa izan daiteke. Herri bakoitzean, ezaugarri ezberdinetako harria egoten da. Jose Inazio Sorazuleren arabera, “tradizioaren arabera, herri bakoitzak bere harria izaten du, ezaugarri ezberdinetakoa. Azkoitian adibidez, Ipintza harria dago; Zumarragan, Ipiñarrieta... Harriak 2.000 kilo ingurukoak izaten ziren. Zumarragako Harri Handiak adibidez, 2.730 kilo pisatzen ditu”.

Hori bai, idiaren pisuaren arabera, harriari pisua gehituko zaio. “Idiak 550 kiloren barruan sartu behar dira. Hortik gora pisatuz gero, kiloko, beste kilo eta erdi gehitzen zaio harriari, hondarrezko zakuekin”.

Goierriko herrietan, harriarik aurkitu al den galdetu diogu gabiriarrari: “hemen ez dugu harriarik aurkitu. Goierrri aldean ez da apusturako ohiturarik egon. Baina adibidez, Aizpurutxotik gora, Azkoitia, Zestoa, Aia... apustu gehiago da. Apustalaria ez da, baina ikuslea bai eh? Idiak asko gustatzen zaizkionak bai”.

Probalekuak

Gipuzkoako hainbat herri-tan probalekua baldin badago ere, “edozein lekutan egin liteke, ez dago probaleku berezirik behar”, zehaztu du gabiriarrak.

Plaza batetik bestera alde handia izaten omen da. “Adokina ipintzen da gaur egun, baina lehen, erreka harria izaten zen, puntaduna. Gorabehera handia egoten da zein harri klase dagoen. Zenbait lekutan, harriarik handiena jarrita ere, erraz ibiltzen da. Azkoitia-koa adibidez, berezia da, dena puntatz eginda dagoelako, erreka harria delako. Harria gastatzen joaten da, baina harriak heldu egiten



Txapelketak

Goierrin idi-proba gutxi antolatzen da, nahiz eta saiatu saiatzen diren. Probatako bat, Gabirian izaten da, abuztuan, Korta jatetxean. Zumarraga-Urretxu aldean gehiago antolatzen dituzte. Soraluzek azaldu digu txapelketa. “Zumarragan, uztailaren 3an, 10 idi-parek hartuko zuten parte. Hortik sei sailkatuko dira, irailean, Urretxuko festetan parte hartzeko. Azkenik, hortik bi sailkatuko dira Santa Lutzi eguneko finalerako. Gabirian, abuztuan, Zumarragan atzera gelditutako idi-pareak arituko dira”.

Sariak

Dirua, mantak eta txapelak izaten dira saritzat idi-demetan. “Manta erakustea gustatzen da, zein proba irabazi duen adierazten baitu”, dio Soraluzek.

du. Alde handia dago. Idi-pare batek plaza baten, 30 itzuli egin baditu, beste batean 50 egin ditzake, esfor-

tzu txikiagoarekin. Baina, jendeak esfortzua ikusi nahi izaten du”, zehaztu du Soraluzek.

Probalekuen inguruan ere eztabaida sortu izan da, batzuek harria errazago ibiltzeko koipea botatzen dutela-eta. “Nik Azkoitin 17 urte tan antolatu ditut idi-probak eta inoiz ez da arazorik ez”, zehaztu du.

Soraluzek aurreratu duenez, Korta jatetxearen aurrean idi-probatarako leku egokia egiteko aukera aztertzen ari da.

Itzainak

Idien mundua gehiago eza-gutzen ari garen honetan, idi-probetan aritzen diren itzain profesionalak daudela ere jakin dugu: “Behin itxuraz idi on samarrak dauzkanak, itzaina ere fisikoki ondo prestatuta egon behar du eta profesionalak ekartzen ditu, gu ez gaude horretan-eta. Itzain profesionalak daude. Trukoak ere jakin egin behar dira, eta plazan ez dute etxean egiten duten lan berdina egiten. Baina itzainari ere ordaindu egin behar zaio. Sariak, idiarentzat, bi itzainentzat eta nagusiarentzat izaten dira”.

Polemika

Plazak aipatuta, Goierrin ia ez da idi-probarik antolatzen. Gabirian bat izaten da abuztuan, iaz Mutiloan ere izan zen... “Saiatu gara baina horrelako erakustaldi bat antolatzeko dirua behar da eta Goierriko udaletxeetatik ez da laguntzarik izaten”, dio Soraluzek. Idi-demarena, eztabaida edo polemika sortzen duen gaia da. Goierrin, hori ikusi du Soraluzek, nahiz eta Gipuzkoako beste leku batzuetan onartua egon. “Goierrin jendea biltzen duen herri kirola da idi probarena. Iaz adibidez, Zumarragan, 2.000 lagun inguru bildu ziren. Abuztuan Kortan antolatu genuenean ere, mila bat lagun hurbildu ziren. Mutiloan ere jende asko izan zen. Hainbeste jende zein ikuskizunek biltzen du Euskal Herrian? Sa-

rrera kobratuta ere, jendea etorri egiten da. Nola liteke hainbeste jende mugitzen duen kirol batek Udalak laguntzarik ez ematea?”

Udalek horrelako erakustaldiak ez laguntzeko arrazoiez galdetuta, Soraluek ez daki zer pentsatu. “Ni askotan egoten naiz udaletxe kontuan eta hizketan. Dirua banatu egiten da, kulturara... Baina jendea biltzen duen ikuskizun batek, nik uste dut laguntza bat behar lukeela. Idiei tratatu txarra ematen zaienaren irudia egon daiteke. Baina idiei ez zaie tratatu txarrik ematen. Idiak erosi eta berez, urtebete edo urte eta erdira hiltegiara joaten dira. Idiak askotan hobeto tratatzen dira, asko mimatzen dira, diren idirik onenak zureak direla uste baituzu. Kas askotan, andrea baino hobeto tratatzen da. Jan denak eman, entrenamenduak eragin... Gero proba-rra joaten da eta animalari ez zaio tratatu txarrik ematen. Eztenkada bat ematen zaiola akuiluarekin... hori normala da. Hori tratatu txarra baldin bada...”.

Akuiluak adibidez aldatu egin omen dira: “lehen bi zentimetroko punta baldin badauka, min handiagoa egiten zaio animalari eta punta txikitu egin da. Ondo dago hori. Idiak nahi ez duenean, eztenkada batzuk ematea ondo dago, lan bat egin nahi ez duelako. Batzutan 2 eztenkada eman beharrean, beste batzutan 50 emango zaizkio. Baina hori kirolari bat bezala da. Kirolari bat prestatzen aritu ondoren, azkenean momentuan egin beharra dauka, ikuskizun batera doazelako. Tratu txarra esatea, gehiegikeria da, ez dago tratatu txarrik idi-dematant. Tratu txarren polemika ez dakit nondik atera den. Beste tratatu txar gehiago badaude, nik uste dut idiena azkena geldituko litzatekeela”.



Bebiak eta txalak larrean.

Txahaletik idira

Sanabres arrazako behiak, txahalak eginda ditu, Jose Inazio Soraluek. “Txahala emea baldin bada, ama bezala jarraitzen du. Arra bada, iditarako uzten dugu. Batzuk hil egingo ditut eta beste batzuk aurretako”.

Idia, abelgorri ar zikiratua da, lanerako erabiltzen edo haragitarako hazten dena. “Itxurosoa ikusten baduzu, urte eta erdira, zikiratu egiten da. Zikiratzen ez baduzu, bular aldea ikaragarria egiten zaio eta zezena egiten da. Zezena ez egiteko, zikiratu egiten da. Hortik aurrera, poliki-poliki, uztarrian lotzen hasi, entrenatu... Pentsa ezazue, zortzi urtera arte, zein prozesu daukan!”, zehaztu du Jose Inazio Soraluek.

Elikadura zaintzen dute idien jabeek. “Pentsu bereziak badaude, jana, granulatuan, behar dutena ematen, baina hala ere gutxi da. Diruz iristen denak, albaitaria ekarriko du, kontrolak egingo dizkio... Profesional onak dituztenak punta-puntan daude”, azpimarratu du.

Idi-probetan dopin kontuak ere entzunak dira. “Dopaje gaia ere hor izaten da. Diputazioa gain-gainean egoten da”, zehaztu du.





Goierri koloretsua

41.373 biztanleetatik

2.359 atzerritarrak dira Goierriin

Goierriko plan estrategikoaren barruan, Goiekiren eta Goierriko hainbat gizarte eragileren enkarguz, Immigrazio Tokiko Plana burutzen ari dira Euskal Herriko Unibertsitateko Soziologia 2-ko hainbat kide. Plan osoa uztail amaierarako bukatuta egotea aurrei-

kusten bada da ere, hurrengo orrietan, Goierriko etorkin kopuruaren datuak aurretu ditugu. Emaizen arabera, 63 herrialde ezberdinetako 2.359 goierritar berri ditugu Goierriin. Ikerketaren ondorioak, egitasmoak, proiektuak... erabat zehazten direnean azalduko ditugu.

ainaraxberria

HANKARA
podologia zentroa

Tel.: 943 887 946
Zelaeta-berri plaza,4 BEASAIN

ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

txekin

www.txekin.net

zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 2 behea
ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble
ajentzia

9:30etik 19:00etara
EGUARDIZ IREKITA

Azken urteetako joerari jarraituz, urtetik urtera, gero eta etorkin gehiago datoz Goierriara. Haziz doan kopurua da gainera.

2007ko urtarrilaren 1eko erroldetan oinarritutako datuak dira Immigrazio Tokiko Planaren aurrerapenean biltzen direnak, nahiz eta jakin, datu horiek, egunetik egunera aldatu egiten direla.

Beraz, datuen arabera, Goierriin (Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Zaldibia, Zegama eta Zerain), 41.373 biztanle bizi gara. Kopuru horretatik, 2.359, atzerritarak dira. Ehunekotara etorritik, Goierriko biztanleri atzerritarra ehunekotan biztanleri guztiarekiko proportzioan: %5,70. Goierriko biztanleri atzerritar komunitarioak guztira 1.232 (%2,98) dira. 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera, Errumania eta Bulgaria Europar Batasunaren barne geratu direnez, biztanle komunitario bezala hartu dira.

Errekurtso gida

Immigrazio Tokiko Planak datuak emateaz gain, ondorioak eta planak ere zehaztuko ditu. Uztailearen bukatzean espero da. Esate baterako, etorkinentzako Errekurtso gida kaleartzeko da irailan.

Herriz herri atzerritar biztanleriaren kopurua eta proportzioak

HERRIA	%	BIZTANLERIA	ATZERRITARRAK
1. Ordizia	%8,0	9.396	753
2. Zegama	%7,7	1.419	109
3. Ormaiztegi	%6,7	1.313	88
4. Itsasondo	%6,2	609	38
5. Beasain	%5,6	13.038	736
6. Zaldibia	%5,5	1.481	81
7. Legorreta	%5,0	1.451	73
8. Olaberria	%4,8	945	45
9. Segura	%4,5	1.330	60
10. Lazkao	%4,4	5.206	229
11. Idiazabal	%4,1	2.204	91
12. Altzaga	%3,2	156	4
13. Gabiria	%2,5	435	11
14. Ataun	%2,2	1.600	35
15. Zerain	%1,2	251	3
16. Gaintza	%0,7	137	1
17. Mutiloa	%0,5	218	1
18. Arama	%0,0	184	0

Goierriin

41.373

biztanle gara;

%5,70

etorkinak dira,

2.359

Ordizian gehien

- 5.000 biztanletik gorako herrietatik (Beasain, Lazkao eta Ordizia), Ordiziak dauka atzerritarren kopuruaren proportziorik altuena (% 8).
- Atzerritarren kopuruaren batz bestekoaren gainetik dauden herriak hiru dira: Zegama (% 7,7rekin), Ormaiztegi (%6,7rekin) eta Itsasondo (%6,2rekin).
- Atzerritarren kopuruaren batz bestekoaren erdian kokatzen diren herriak bost dira: Zaldibia (%5,5), Legorreta (%5), Olaberria (%4,8), Segura (%4,5) eta Idiazabal (%4,1).
- Atzerritarren kopuruaren batz bestekoaren azpitik dauden herriak sei dira: Altzaga, Arama, Ataun, Gabiria, Gaintza, Mutiloa eta Zerain. Hauen proportzioak %0tik %3,5ra dira.



INSTALATZAILE OFIZIALA
 **LLAZAPLUS ZENTROA**
 T 943 880 243 Antzizar auzoa z/g - Beasain

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Mota guztietako gida-baimenak

Aita Urdaneta

ORDIZIA

☎ 943 88 72 76

Goierriko nazionalitateak kopurua eta proportzioak

NAZIONALITATEA	KOPURUA	%			
Errumania	735	31,3	Errusia	5	0,2
Portugal	328	14,0	Txekia	4	0,2
Maroko	257	11,0	Kroazia	4	0,2
Ekuador	235	10,0	Belgika	3	0,1
Argentina	115	4,9	Hungaria	3	0,1
Pakistan	52	2,2	Lituania	3	0,1
Aljeria	48	2,0	Guatemala	3	0,1
Txile	44	1,9	Irlanda	2	0,1
Kolonia	42	1,8	Suitza	2	0,1
Kuba	39	1,7	Eslovakia	2	0,1
Bolivia	36	1,5	Bosnia+Herzegovina	2	0,1
Dominikar Errep.	35	1,5	Angola	2	0,1
Bulgaria	31	1,3	Cabo Verde	2	0,1
Italia	27	1,2	Kamerun	2	0,1
Ukrania	27	1,2	Kanada	2	0,1
Frantzia	25	1,1	Filipinak	2	0,1
Erresuma Batua	24	1,0	Grezia	1	0
Brasil	23	1,0	Andorra	1	0
Venezuela	21	0,9	Austria	1	0
Alemania	19	0,8	Serbia+ Montenegro	1	0
Mexiko	16	0,7	Bolikosta	1	0
Polonia	15	0,6	Ginea	1	0
Txina	15	0,6	Mauritania	1	0
Estatu Batuak	14	0,6	Nigeria	1	0
Ekuatore Ginea	11	0,5	Tunisia	1	0
Senegal	11	0,5	El Salvador	1	0
Nikaragua	11	0,5	Honduras	1	0
Mali	10	0,4	Paraguai	1	0
Peru	10	0,4	Egipto	1	0
Uruguai	6	0,3	Afganistan	1	0
Herbehereak	5	0,2	Australia	1	0
			Taiwan	1	0

Errumaniarrak nagusi

Immigrazio Tokiko Planak biltzen dituen arabera, munduko 63 herrialde ezberdinetako herritarrak etorri dira Goierri, bizitza hobeagoaren bila.

Goierritar berri gehienak, Errumaniatik etorriak dira. Eskualdez eskualde aldatu egiten da etorkinen jatorriaren portzentajea. Iaztik aurtena adibidez, bikoiztu egin da errumaniarren kopurua. 735 errumaniar bizi dira Goierriin.

Bigarren tokian daude portugaldarrak, 328; hirugarrenan, marokoarrak, 257; ekuadortarrak ere asko dira, 235, laugarren postuan daude hauek.

2007ko datuetan, beste joera bat ere nabarmendu daiteke: gero eta pakistandar gehiago datoz Goierriera. Momentuz, kasu gehienetan, gizonezkoak bakarrik datoz.



Mikel Etxenike eta Aister



Zaldiak dira Mikel Etxenike olaberri-tarraren zaletasun nagusia. Aister zaldi gaztearekin itxaropen handia du. Oraingoz, lehenengo lasterketa irabazi berri du Bizkaiko Ereñon. Raid lasterketetan parte hartzen du, 40 Km-tik hasi eta 200 Km-rainoko lasterketak izaten di-


ra, baina zaldia pultsazio maila batetik igo gabe eraman behar izaten dute. Horretarako ordu luzeetako entrenamenduak egiten ditu Aralar inguruetan. 16 urte ditu Mikel eta zaldiez dakien guztia Martin Garmendia Alarpe zalditegikoak irakatsi dio. Berari esker dabil lehiaketetan.



BAREAK Merkatari Elkarteak eskerrak ematen dizkie bere bezeroei

ADI UZTALAREN 1etik 15era

LORTU ZUEN OPARIAK
BAREAK TXARTELAREKIN erosketak eginez.



MUJKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



SILVIA MIRASCASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zka: 649 RPS: 144/02



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)



Ekainaren 16an Ereñoko raid-a irabazi zenuen Aisterrekin.


Bai, 37 kilometroko proba zen. Hasieran zaldia aurrean eramatea genuen helburu, baina irabazeko aukera ikusi genuenean aurrera jo eta garaipena lortu genuen. **Zenbat kilometroko lasterketak izaten dira raid-ak?**

Zaldiak 6 urte egin arte gehienez 40 Km-ko probetan parte hartu dezakete. 6 urterekin maila altuagoko lasterketetan parte hartu dezakete. Hor 80, 120, 160 eta 200 Km-takoak izaten dira.

Lehen ez zegoen adin muga hori baina zaldiak gaztetan behar baino gehiago behartu eta lehiaketarako hondatu egiten ziren.

Noiz eta nolatan hasi zinen zaldien munduan?

Orain dela 4 urte hasi nin-



Bi zaldi dituzte Etxeniketarrek. Itxaropen gebien Aister izeneko 5 urteko arabiar arrazako zaldian dituzte jarrita. Bestea, 8 urteko Burgesa izeneko bebor anglo-arabiarra da. Hankak ez ditu ondo, oso sentiberak ditu, eta urte beteko atsedena eman behar diote bere onera etortzeko.

tzen zaldian ibiltzen eta lehiaketen munduan bi urte egingo ditut.

Aurretik ez nuen zaletasunik. Orain dela 4 urte oporretan zaldi batzuk ikusten izan ginen. Niri gustatu zitzaidan, baina, ez nuen uste, zaldi bat edukiko nuenik. Ondoren aitak zaldia oparitu zidan eta ikasten hasi nintzen. Pixkanaka zaldietan joan naiz, gainera, zalditegian oso giro ona dugu. Asteazken zehar bakarrik entrenatzen dut, baina, asteburua iristean lagunartean aritzen gara.

Zer moduzko zaldia da Aister?

Txintxoia da, ona denik oraindik ezin da esan. Oraingoz ez du lasterketa garrantzitsurik irabazi, baina, badugu itxaropena.

Zaldiari hitz egiten al diozu? Mimo asko behar al du?

Mimo asko eginez gero gaizki ohitzen dira. Aisterri raidetan hitz egin beharra dago, bebor bat ikusiz gero aztoratu egiten da eta pultsazioak igotzen zaizkionez lasaitzen saiatzen gara. Bes-

tela, gutxi hitz egiten diegu.

Bion arteko komunikazioa behar izaten al da?

Bai, zaldi bakoitzak badaki gainean zein pertsona doan. Adibidez, ideia asko ez duen norbait igotzen bada, zaldia berehala konturatzen da. Nik pentsatzen dut komunikazioa badagoela.

Zuretzat zer da zaldia, lagun bat?

Bai, hasieran zaleasun bat da. Baina, azkenerako zaldiarekin hainbeste ordu pasatu ondoren, ez duzu beste lagunekin egoteko denbora handirik, eta zaldia bera lagun bihurtzen da.

Nola prestatzen duzue zaldia?

Orduak eta orduak entrenatuz. Ez da entrenamendu intentsiboa, ez da trostan joaten, pausoa joaten gara. Horrela zaldiak bihotza egiten du. Raidetan al baitarien

kontrolak egoten baitira eta zaldiak ezin du pultsazio maila batetik pasatu.

Lazkaomendi inguruan ibiltzen al zarete?

Bai, Aralar aldera joaten gara. Olaberria aldera ere etortzen gara, baina gutxiagotan, errepidea pasatu beharra dago eta...

Zaldiak gustuko al du mendian ibiltzea?

Zaldia ukuiluan ez dago gustura, denbora askoan atera gabe edukitzen baduzu nahastu egiten da. Batzuei behintzat gustatzen zaie mendian ibiltzea eta hori ikusten baduzu zerorri ere motibatu egiten zara. Zenbait zaldiri asko kostatzen zaie aurrera joatea eta hori zaila da.

Zaldiaren elikadura asko zaintzen al duzue?

Bai, beharrezkoa da. Zaldiak ezin du edozer gauza

Etorkizunean gustatuko litzaidake nire ukuilua eta zaldiak izatea.

jan, tripetako arazoak izanez gero, botaka ezin duenez egin, hiltzeko arriskua baitago. Janaria ere neurrian eman behar zaio, ez gehiegi ezta gutxiegi ere. Lasterketarako bitamina eta propietate bereziak dituen janaria eman behar zaio, baina beti ere behar duen neurrian, erregulartasunez.

Zein da zure helburua zaldiaren mundu honetan?

Helburua, Santa Susana raida egitea dut. Bartzelonan izaten da 200 Km-ko lasterketa hau, baina oso gutxik lortzen dute parte hartzea eta zaila ikusten dut. Aisterrerekin ba dugu itxaropena, baina, ikusi egin behar.

Etorkizunean gustatuko litzaidake nire ukiulua eta zaldiak izatea. Zaldi batekin ezin dira lasterketa asko jarraian egin, atsedena eman behar zaie eta hobe da zaldi gehiago izatea. Horregatik eduki nahi dut baserri bat, edo nire ukiulua, zaldi gehiago izan ahal izateko.

Beste modalitatekin bat probatzeko tentaziorik ba al duzu?

Ez, gustura nago raiden munduan eta ez dut aldatzeko inongo asmorik.

Zaletasun garestia al da?

Zaldia edukitzea ez da garestia. Baina, mundu honetan gehiago sartzen bazara, albañaria, lasterketak, garrarioa... garesti ateratzen da. Lasterketa guztietara joateko aurrekonturik ez daukagu eta urtean zehar proba jakin batzuk aukeratzen ditugu eta horietara joaten gara.

Hurrengo itrenbidea babeslea bilatzea da. Baina hori oso zaila da. Talde kirolentzat errazagoa da ba-



Zaldiaz aparte beste zaletasun bat?

Korrika egitea.

Kirol bat?

Futbola.

Realzalea?

Ez, Bartzelonazalea.

Musika talde bat?

Musika ez dut oso gustuko.

Liburu bat?

'Irakasle alu bat'.

'Handia egiten zarenean', zer izan nahi duzu?

Gustatuko litzaidake honetaz bizitzea, bai-

na oso zaila da. Zaldi asko behar dira, lasterketa askotara joan, postu onak egin eta dirua irabazi ahal izateko. Lanpostu on bat eduki eta zaletasun honi eustearekin konformatuko nintzateke.

Zaldiaz gain beste animalia bat?

Zakurra.

Amets bat?

Santa Susana lasterketan parte hartzea.

Festarik gustukoena?

Festetako giroa ez zait gustatzen. Gainera zaldian ibiltzeko goizean goiz jaiki beharra izaten dugu.

nako kiroletan baino. Lasterketak irabaziz errazagoa izango da, baina, oraingoz oso zaila dago.

Lasterketa bat irabazi duzue, gainontzean, nola doa denboraldia?

Zaldia iaz erosi genuen. Lehenengo lasterketa nire aitarekin egin zuen Olaberrian bertan, eta ez zuen bukatu. Estreinaldia izanda, pultsazioak gehiegi igo zitzaizkion eta kanporatu egin zuten. Gero Argantzun nirekin parte hartu eta bukatu egin zuen. Arboledan,

berriz ere aitarekin korritu eta bukatu zuen. Ereñon laugarren lasterketa zuen eta irabaztea lortu genuen.

Guk uste dugu maila altura iritsiko dela zaldia. Lasterketetan ikusten zaio aurrera joateko gogoia duela eta seinale ona da.

Beraz, aita ere ibiltzen da.

Aita nire ondoren hasi zen eta hasieran ez zuen lehia-ketetan parte hartu nahi. Baina behin probatu zuen eta engantxatu egin da.

Bai nire behorra, berez, Burgesa da eta Aister aitare-

na. Baina, nirea atsedean hartzen ari denez, zaldi bakarrarekin gabiltza biok. Aita igandeetan ibiltzen da eta ni nabil egunero Aisterrerekin. Orain, zaldi bakarrarekin moldatzea zaila denez, beste bat ekartzeko asmoarekin gabiltza.

Datorren urtean, 6 urterekin, lasterketa luzeagoak egingo dituzue, ezta?

Bai, 80 Km-ko batzuk eta 40koak egingo ditu. Ez da komeni bat-batean luzeagoak egitea, hobe da pixkanaka joatea.

Arkupe

ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAK

J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA

Olagi

Sagardotegia
Jatetxea

Urte guztian
zabalik

Eguneroko menua

Karta

Sagardotegiko meua

© 943 88 77 26 ALTZAGA



Mila Araiztegi, Miren Agirre eta Margari Arruabarrena:

Esperientziaren Eskolako esperientzia

Esperientzia trukaketa bultzatzeko gune irekia izateko jaioa da Esperientziaren Eskola. Goierriko eta Urola Garaiko adineko pertsonek gizartean positiboki eragin ahal izateko baliabide egokiak izan ditzaten. Esperientziak landuz, elkar trukatu eta era berean, kultura eta hezkuntza maila egokiak lortuz.

50 urtetik gorakoei zuzendutako eskola da. Aste-an hirutan izaten dira hiru orduko eskolak, Goiekiren egoitzan bertan. Gai ezberdinak lantzen dituzte bertan. Aurtengo ikasturtean 16 laguneko taldea ibili da, horien artean, Mila Araiztegi eta Miren Agirre idiazabal-darrak eta Margari Arruabarrena zaldibiarra. Esperientziaren Eskolako esperientzia kontatu digute.

Nolatan animatu zarete Esperientziaren Eskolan parte hartzera?

Mila: Lagun batek esan zidan, Mireni ere komentatu nion. Oso ondo zegoela esan zidaten eta horrelaxe hasi ginen. Hasiera-hasieratik ez nintzen hasi. Oso gustura ibili naiz.

Miren: Beste lagun batek esan zidan eta horregatik animatu nintzen. Eta egia esanda, beste ezer egiteko aukerarik ere ez neukan eta horrela hasi nintzen.

Mila: Denbora aprobetxatu egiten duzu eta aldi berean sekula ikasi gabeko gaiak ikasi. Asko ikasten da. Itteerak ere egiten dira: Euskadiko Orkestra ikustera, Arantzazura, Gasteiza. Zientziaren Museoa...

Margari: Gogoa neukan lana bukatutakoan zerbait egiteko. Jakiteko gehienbat. Kurtso interesgarria iruditu zitzaidan. Aditza ona neukan eta hortik etorri nintzen.



Argazkian, ezkerretik eskuinera, Mila Araiztegi idiazabal-darra, Margari Arruabarrena zaldibiarra eta Miren Agirre idiazabal-darra.

tzen. Eta bertan egon garenan, gustura. Gaiak oso garrantzitsuak, batzuk besteak baino gehiago. Aurretik ez dugu denborarik izan ikasteko eta orain Esperientziaren Eskola aprobetxatu dugu.

Mila: Gure gazte denboran ez dugu aukera handirik izan ikasteko. Orain behintzat denbora badaukagu zerbait egiteko.

Margari: Norberarentzako gauza bat da Esperientziaren Eskola..

Gai ugari landu dituzue. Zer gustatu zaizue gehien?

Margari: Niri adibidez literatura gustatu zait, bioetika ere asko... Gai asko izan di-

ra. Oso irakasle onak eduki ditugu.

Miren: Geroa nolakoa izango den, prestakuntza bat ere izan da. Zahartzaroa ulertzeko edo prestatzeko ikasgaia ere eman digute.

Mila: Zientzia eta teknologia asko gustatu zait. Ingu-rumen gaiak ere bai. Denak izan dira oso onak, baina batzuk beste batzuk baino gehiago gustatu zaizkit.

Margari: Euskararen edo euskal historiaren gaia ezin izan dugu bukatu.

Mila: Euskal historia oso interesgarria iruditu zait. Karlisen izakerari buruz-eta aritu gara eta harrezkero izugarrizko interesa jarri dut. Zumalakarregi museora

joan ginen.

Margari: Gai batzuk motz gelditzen dira. Beharbada nik gai batzuk kendu eta beste batzuk luzatuko nituzke.

Miren: Emakumearen gaia ere oso interesgarria izan da.

Margari: Bai, gaiak gogorazten hasten zara eta asko izan dira interesgarriak.

Mila: Adinekoen sexualitateari buruzko gaia ere ondo egon da.

Jendea ere ezagutuko zenuen...

Mila: Bai, Goierrikoak eta Urolakoak ibili gara.

Miren: Urolakoak Esperientziaren Eskolan ezagutu ditugu. Oso jende jatorra ibili gara.

Margari: Oso talde polita egon gara.

Emakumezkoak ala gizonezkoak ibili zarete gehiago?

Miren: Emakumezkoak gehiago.

Margari: Lau gizonezko.

Matrikula zabalik

2007-2008 ikasturtean parte hartzeko izena emateko epea zabalik dago. Bertan parte hartzeko baldintza bakarra, 50 urtetik gora izatea da. Urrian hasiko da ikasturte berria. Izena emateko edo informazio zabalagoa izateko Goiekira (943161537) deitu behar da.

Mila: Emakumea gehiago animatzen da sobrare etxetik ateratzera. Gizonak ere animatuko dira etxetik ateratzera, baina beste gauza batzutarako.

Datorren ikasturteari begira, 50 urtetik goierritarak animatuko al zenituzkete Esperientziaren Eskolan parte hartzera?

Mila: Zer egin ez dakiena animatu egin beharko litza-teke. Oso gustura ibili gara-eta.

Margari: 3 orduko okupazioa da eta horrek behar-bada jende bat atzeratzen du baina lanera joaten ginenean gehiago pasatzen gengen.

Arraroa egin al zaizue boligrafoa eta koaderno hartuta joatea, ikasleean lekuan jartzea?

Miren: Ez da hainbeste. Gehiago entzutea izaten zen, eta parte hartzea.

Mila: Azterketarik ere ez dago eta beno.

Margari: Gehiena erabili genuen, memoria lantzen ibili ginenean. Hura ere oso polita izan zen.

Mila: Gehienbat da, zer esaten dizuen aditu, eta galderak egin eta parte hartu. Etxeko lanik ez dute ematen.

Jendeak parte hartzen al zuen?

Miren: Gure taldean bai.

Margari: Askotan, luzatu ere egiten ginen, gaia zabaldu askotan gehitxo ere bai.

Mila: Kafe makinaren buel-



Irteerak

Ikasgelako eskolaz gain, irteera ugari ere egin dituzte, gaiak sakontzeko. Goierrin bertan, eta Goierritik kanpora. Adibidez, Zumalakarregi Museora, Arriarango urtegira, Sasietara, Ordiziara, Zientziaren Museora, Gasteiza, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa ikustera... Bazkariren bat edo beste ere egin dute.



tan ere luzatzen dira solasaldiak.

Esperientzia Eskolako ikasle ohien elkarte bat badago, Gueske. Lanean jarraitzeko asmoa al daukazue?

Margari: Ni ez naiz sartu,

nire helburua Esperientziaren Eskola zen. Orain badauzkat zereginak eta bukatu dut.

Mila: Orain aurrera eraman beharreko proiektua bukatu beharrean gaude: literatur solasaldien tailerra. Gueske-

rekin dago lotuta hau ere. Gero ikusiko dugu hortik aurrera zer ateratzen den.

Oraindik ere gizartean eragiten jarraitzeko asmoa daukazue beraz.

Mila: Ahal baldin badugu bai.



ASEPLAN S.L.
A HOLKULARITZA · ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA

Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea

BEASAIN

Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g



www.txekin.net

Aseguruen konbeneduria

SEGURUEN PROFESIONALAK

MUNDUATE

Elosegi, 1- behea
Tfnoa.: **943 88 86 20**
Tfno. mugikorra: **609 49 14 41**
Faxa: **943 88 91 18**
LAZKAO

Ataungo organo barrokoaren I. jaialdia ospatuko da uztailean

Ataungo San Martin elizako organoa Euskal Herrian eta nazioartean ezagutaraztea eta aldi berean, organo barroko iberikoarekin egin den musika berreskuratzea dira Ataungo Organo Barrokoaren I. jaialdiaren helburuak. Urte gutxi batzuk barru gainera, 250 urte betetzera doa Ataungo Organo Barroko Iberiarra. Andoni Munduate musika adituak eta jaialdia antolatzen lanetan ibili denak, Donostian egin zen jaialdiaren aurkezpenean azaldu zuenez, “1997an organoaren zaharberritze lanak bukatu zirenetik urtean bi kontzertu antolatu izan ditugu, bata Barroko Aire Zikloaren barruan eta bestea Eguberri inguruan. Hau, ordea, ez zen nahikoa herrian horrelako altxor bat izanda”. Horregatik erabaki zuten Ataungo organo barrokoa protagonista izango zuen jaialdi bat antolatzea.

Duela hamar urte berritu zuten Ataun San Martingo elizan dagoen Organo Barroko Iberiarra, berezko aintzinako soinua itzuliz. San Martin elizaren eraberritzea berriz, bukatu berri dute. 800.000 eurotik gora erabili dituzte berrikuntzetan.

Behin eszenatokia edertuta hainbat ataundarren artean aspaldidanik buruan dabilen ideia gauzatuko da beraz uztailean: Musika Barrokoaren Nazioarteko I. Jaialdia antolatu baitu Ataungo Udalak. Uztaileko larunbatean kontzertuak izango dira eta uztailaren 9an eta 18an, bi hitzaldi ere eskainiko dira.

Ekintza hauen eta organoaren informazio gehiago, sortu berria duten ondorengo web orrian duzue: www.ataunorganoa.com.



Uztaileko egitaraua

Uztaileko larunbatetan, organo kontzertuak izango dira, iluntzeko 8etan, San Martingo elizan. Beste bi hitzaldi ere antolatu dituzte. Horiek zazpitan izango dira.

Kontzertuak:

- **Uztailak 7, larunbata:** Guy Bovet organo-jolea. Musika munduan artista polifazetiko, original, landu eta eremu askotan aktibo bezala ezaguna da. 50 diskotik gora grabatu ditu, eta urtean 60 errezital baino gehiago ematen ditu, munduko hainbat organotan.
- **Uztailak 14, larunbata:** Francisco Rubio Cornetto eta Javier Artigas organo-jolea. Rubiok Espainiako nahiz kanpoko aintzinako musika talde ugariarekin jo du eta berauekin jaialdi ospetsuetan parte hartu du. Europako diskete, irrati eta telebista ugariarentzako diskoak grabatu ditu. Artigasek, Zaragozako Kontserbatorioan pianoa, organoa eta klabinenbaloa ikasi zituen. Bere lankidetzak eta grabaketak ugariak dira, bakarlarigisa nahiz instrumentu laguntzaile moduan.
- **Uztailak 21, larunbata:** Elena Lopez Jauregi soprano ordiziarra eta Norberto Broggin organo-jolea. Elena Lopez Jauregi soprano ordiziarra oso gaztetatik hasi zituen ikasketak. Madrilgo Teatro Realaren mailako hainbat eszenatokitan abestu du, eta disko ugari ere grabatu ditu. Broggin Buenos Airesen jaioa, piano eta musika-kultura espezialitateetan graduatu zen. Bere lankidetzak ugariak eta sona handikoak dira.
- **Uztailak 28, larunbata:** Iruñako Ganbera-Abesbatzaren Nova Lux taldea eta David Guindano, zuzendaria. 2006an Iruñako Ganbera-Abesbatzak Nova Lux talde egonkor profesionala eratu zuen, Espainiako Errenazimentuko nahiz Barrokoko musikan espezializatua. Zuzendari lanetan, David Guindano arituko da.

Hitzaldiak:

- **Uztailak 9, astelehena:** Guy Boveten eskutik, ‘Organo iberikoa: iragana eta geroa’.
- **Uztailak 18, asteazkena:** Norberto Brogginen eskutik, ‘Arantzazuko Artxiboko altxor musikalak’.

la 250 urteko historia

San Martin elizako koruan dago kokatua organoa. Barroko estilokoa da eta estilo horren barruan, organo iberriko motakoa. Gipuzkoa osoan horrelako zazpi organo daude, horietatik garrantzitsuena Ataungoa da adituen esanetan, "garaiko soinu unerik gorenenaren eredu aparta delako".

Ataungo Udalak 1998ko martxoan argitaratutako 'Ataungo Organo Barrokoa' liburuxkatik ateratako datuen arabera, haize-kutxa barruan eskuz idatzitako inskripzio bat dago. Horrelaxe dio: "este organo trabajo Lorenzo de Arrazola el año 1761 Becino de la Villa de oñate". 12.000 errealekin egin zuen.

Egurrezko osagaietan, intxaurrendoa, gaztainondoa eta haritza erabili ziren; eta neurri txikiagoan, pinua. Beste osagai batzuetarako burdin forjatuaz eta eztaunaz (hodientzako) baliatu ziren.

1992. urtean berriro lanak hasi ziren eta Jose Mari Arrizabalaga aditua organoaren egoera aztertzen aritu zen. Oro har, ondo mantendutako organoa zela baieztatu ahal izan zuen (egurrezko elementuen egoera ona azpimarratzekoa da) eta hori, zeukan berezko kalitateari zor zio-



la. Dena den, organoaren gainean denborak izandako eragina ere ezin ukatu eta ondorioz, berriro egiteko premia bazuela eta, organoa piezaz pieza desegin eta Kataluniara, Arrizabalagaren tailerrera eraman zuten. Kaxa hutsik eta organo-jolearen aulkia bakarrik utzi zituzten Ataungo elizan.

Lanak amaituta, 1996ko azaroaren 11n, San Martin egunean, estreinatu zen berriro ere organoa.

Organoak bi teklatu dauzka: bata eskuekin jo-

tzekoa, 45 nota ditu "de octava grave diatónica u octava corta" erakoa; bestea, 8 nota dituen "diatónico de Contrás" deiturikoa. Horiez gain, 35 erdi erregistro ditu (15 bajoentzat eta 20 tripleentzat) eta kontra multzo bat ere bai. Tiragailuak intxaurrendoa egurrez eginak daude, eta muturrek boja dute.

Guztira 1.450 hodi dauzka organoak: 1.399 soinu-dunak edo benetakoak eta 51 gezurrezkoak edo apaingarri bezala daudenak. Ho-

diok egiteko eztaunua eta gaztainondoa zein haritzaren egurra erabili dira.

Sekretua intxaurrendoa- ren egurrez egin dago eta pieza bakarrekoa da; bere hamaika oholen gainean daude ipinita hodiak. Kontren sekretuak aldiz, bi pieza dauzka.

Organoak hain beharrezkoa duen haizea lortzeko bi hauspo ditu (eta hauspo bakoitzak zazpi tolestura), kuneiforme edo abaniko itxurakoak. Egurra haritzarena da eta larrua baldes motakoa. Hauspoen neurriak hauetxe dira: 1.950 x 1.040 mm. Hauspo horiek "elikatzeko", soinu gabeko kabina batean, motoredun haizagailu isil bat ere bada. Beraz hauspoak mugitzeko bi era daude: eskuz eta motoredun haizagailu elektriko horren bidez.

Joxe Mari Arrizabalaga organo maisuaren arabera, "iraganak utzi digun artelan miresgarri baten aurrean gaude eta horrelakoetan, giza legeak berak agintzen du ezin dela desegin ezta aldatu ere, ondo pentsatu eta hobeto egindako zerbait. Praktikan, gaizki eraikitako organoek ez dute gehiegi irauten. Aitzitik, ondo egin eta egoki zaindutakoek mendeetako bizia izan dezakete".

GRAFICAS EGUZKI
INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 17
T/F 943 88 94 82

KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLETAN
PLOTER LANAK ETA
PLANOEN KOPIAK

☎ 943 02 73 58
Faxa: 943 02 79 39
San Inazio, 5 BEASAIN

PSIKOLOGI KLINIKOA

ARGI Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

biok kudeaketa

fiskala
kontablea
merkatala
laborala

Tel 943 88 44 00
Faxa 943 80 51 27
www.biokzerbitzuak.com
Ordizia Goierri, 12

ETXEBIZITZAK

errentan eman

Jakan apartamentua alokatzen da igerilekuarekin, uztail eta abuztuan. 676615361.

Goierri 2 logelako pisu berria alokatzen da. 669827096.

Jakan apartamentua alokatzen da udan, igerilekuarekin. 607284009.

Jakan, apartamentua alokatzen da, udan zehar, igerilekuarekin. 943216684 - 943885674.

salgai

Ataun. 60 m², berritua, prezio interesgarria. LAZKAO INMOBILIARIA.

Beasain. Kanpoa aldera ematen duen etxebizitza salgai. 3 logela. Berogailua. INMO F3. 943164936 - 629417171.

Beasain. J.M. Iturrioz kalean 60 m²ko pisua salgai. 2 logela. Ilogailuarekin. LAZKAO INMOBILIARIA.

Beasain. 4 logelako etxebizitza salgai. Garajea eta igogailua. INMO F3. 943164936 - 629417171.

Beasain. Gela bateko apartamentua salgai. Erabat berritua. 26.000.000 pezeta. 669827096.

Beasain. Errekarte kalean, 65 m²ko etxebizitza salgai. 3 logela. Eguzkitsua. Prezio interesgarria. LAZKAO INMOBILIARIA.

Beasain. Erdigunea. Dekorazio polita. Altzairuz hornitua. 2 logela, komuna, sukalde handia, egongela, balkoia eta trastelekua. Oso prezio interesgarria. 648055688.

Idiazabal. 85 m². Oso eguzkitsua. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna eta balkoi handi bat. 25 m²ko garaje itxiarekin. Oso egoera ona. 228.000 euro. 648055688.

Idiazabal. Eraikuntza berria, 3 logelako azken etxebizitza salgai. 47.000.000. LAZKAO INMOBILIARIA.

Lazkao. Hirigoiaren kalean, 80 m²ko pisua salgai. 3 logela. Ilogailuarekin. Eguzkitsua. LAZKAO INMOBILIARIA.

Lazkao. San Jose kalean, 60 m²ko etxebizitza salgai. 3 logela. Berritua. LAZKAO INMOBILIARIA.

Lazkao. Laister eraikuntza berriak. Apuntatu zaitez. LAZKAO INMOBILIARIA.

Segura. Berritutako atiko zoragarria salgai. 2 logela, komuna, sukaldea eta saloia. Oso prezio interesgarria. 648055688.

Segura. Promozio berriko etxe adosatuak salgai. INMO F3. 943164936 - 629417171.

Urretxu. Udaletxe inguruan, 2 pisu salgai. 29.000.000 pezeta. 669827096.

Zaldibia. 2 logelako pisu polita salgai, oso eguzkitsua. Apar-kalea eta lorategia. 198.000 euro. 648055688.

GARAJEAK

salgai

Legorreta. Neurri ezberdinetako garajeak. LAZKAO INMOBILIARIA.

IBILGAILUAK

salgai

Volkswagen T3 Joker 1.6 TD salgai. 1986koa. Dena berritua. Bi urte dituen motorra 18.000 km-rekin. Berezko Westfalia ekipamendua. 675702241.

GALDUTAKO OBJEKTUAK

Argazki makina digitala galdu da Itsasondoko plazan. Aurkituz gero, herriko dendan utzi. 605747333.



RENAULT

LAZKAO GARAJEA

Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxa: 943 888 901

Senpere Industrialdea LAZKAO

IÑAKI ARIN

aseguruak

943 888 702 Oriako pasealekua, 20 BEASAIN

Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

Altzariak neurri

Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47

Antzizar-Katea, 5 BEASAIN



kutxa

BESTELAKOAK

salgai

Errepiderako aluminiozko tandem salgai. 617705672.

Knaus karabana salgai. 2005 urtekoa. 3 anbertetako. Gehigarri guztiekin. 620396947.

Arropa denda baterako altzariak salgai.

Etzeko sarrerarako altzaria salgai. Modu onean. 943161345.

Piano zahar bat salgai. 943187537.

Egurrezko mahai sendoa salgai, banku eta aulkiekin. Egoera onean. 690311342.

Sutarako pago egur lehorra salgai. 615755762. Etxera entregatzen da.

Egurrezko mahai handi bat eta txikiak salgai. Baita banketak ere. Prezio onean. 943084546 (Joxemari). 943084044 (Ramon).

Trialeko Sherco motorra salgai. 209 cm³. 2004 urtekoa. Egoera ezin hobean. 2.900 euro. 649704743.

LANA

eskaerak

Beasainen irakasleak behar dira honako gaien inguruko eskolak emateko: enpresaritza gaiak, matematika, fisika, kimika, ingelera eta informatika. Bidali kurrikuluma Ordiziako 61 posta kutxatilara.

Ordiziako kafetegi baterako neska behar da. Astelehenetik larunbatera, goizez edo arratsalde. Lan kontratuarekin. 943882793.

Beasainen emakume bat behar da haurra zaintzeko. 686999494.

Sukaldaria behar da Joxepanen, Zaldibian. 652161335.

Lan eskaintza Goierrin turismo arloan. Euskara derrigorrezkoa. Curriculumak: arazi@arazi-kit.com.

Aizkorpeko museoetarako langilea behar da.

Kurrikulumak bidali aldabe@aldabe.com-era.

Esperientziadun pertsona euskalduna behar da lehenbailen kafetegi-okindegi batean, kontratuarekin lan egiteko. 629857484.

Idiazabalen neska bat behar da zerbitzari lanetarako. 650412119.

eskaintzak

Banatzalea eta pintura

peoia eskaintzen da. 696228093.

Neska euskalduna, magisteritza ikaslea, abuztuan partikularrak emateko (Lehen Hezkuntza) edo haurrak zaintzeko eskaintzen da. 658523160.

Tarot kontsultak. 943766214.

Goierritarrako iragarki laburrak: hitz bakoitzeko 0,63 euro.

Iragarkia bi aldiz argitaratuko da Goierritarran, behin Goierriko Hitzan eta 7 egunez egongo da www.goierrikohitza.info webgunean.

943 88 96 12

goierritarra@goierrikohitza.info / gh@goierrikohitza.info

Kol. zkia.: 764



Nerea Larrea Oyarbide

Aho kirurgia
Implantologia
Periodontzia
Artikulazio eta ahoko minak

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118

Ikaskide

irakaskuntza eta pedagogia

Joan Iturralde, 5 solairuarte, Beasain
www.ikaskide.net
943 160 120
685 722 403
675 006 462

ESKOLA LAGUNTZA:

Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa, moduluak

UNIBERTSITATE MAILA:

Enpresaritza, Injeniaritza, Kimika eta Fisika

ERREKUPERAZIOAK

IKASKETA TEKNIKAK

INFORMATIKA, MEKANOGRFIA

INGELERA IKASTARO TRINKOA:

Goizez eta arratsalde / Maila guztiak / PET, First Certificate, Advanced

UDA
2007

2007-2008
matrikula zabalik

Harpidetza txartela

Urteko kuotak: Egin ☒ aukeratutako kaxan

☐ **Goierritarra** 25 euro

☐ **Goierritarra** + ☐ **hitza** 67,5 euro

☐ **hitza** 62,5 euro

Izen-abizenak:.....

Helbidea:..... Herria:.....

Telefono zenbakiak:..... NAN:.....

Kontu zenbakia(20 digitu):.....

Bidali txartela
helbide honetara:
Goierritarra
Urbalde plaza 7 behe
Beasain

Harpidedunen
arreta zenbakia:
902 82 02 01



Ormaiztegiko eskolaumeak 1924. urtean

Goiko ilaran ezkerretik eskuinera: Joxe Iurrita (Sosoagazabal), Joxe Antonio Antia (Berroeta), Nikolas Berasategi, ezezaguna, ezezaguna, Ramon Zabala (Errota), Florentzio Enatarreaga (Alegikoa) eta Jeronimo Arandia (maisua).

Bigarren ilaran: ezezaguna, Tomas Zeberio, ezezaguna, Julian Gaztañaga, ezezaguna, Pantaleon Gaztañaga, Joxe Maritxalar (1936ko gerran hila), ezezaguna eta ezezaguna.

Hirugarren ilaran: Tiburtzio Maritxalar, ferrobiarioaren semea, Juan Zufiaurre (Igara), Juan Mujika (Iraegi), Periko Zaldua (Agerre, 1936ko gerran hila), ezezaguna, Pako Baztarrika, Joxe Txiki (Manzisor sendiarekin bizi zen, 1936ko gerran hila) eta ezezaguna.

Behoko ilaran: ezezaguna, Luzio Mujika (Iraegi), Pako Legaz (geltokiko faktorearen semea), Patxi Iurrita (Sagastiberri), Pedro Joxe Eskisabel, Txomin Maritxalar eta Alejandro Guerra.

- ✕ Jabekideen komunitatea osatzea
- ✕ Komunitateen kontabilitatea
- ✕ Akten idazketa
- ✕ Aurrekontuen eskaera
- ✕ Aholkularitza legala
- ✕ e.a.



Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599


Urdaneta 52-behea
ORDIZIA
Tel.: 943 087 486

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 881 944
Ordizia

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 884 104
Beasain

Oskarbi Oinetakoak
Sekundino Esnaola 8
Tel 943 721 978
Zumarraga

Oskarbi Oinetakoak
Erdiko Kallu
Tel 943 711 804
Arrasate



Autowag



☎ 943 888 254

☎ 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN



BARANDIARAN
zeramikak

ERREFORMAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJA

SEMPERE KALEA, 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com

ZAHARRA • BERRI

IGELTSERITZA ETA ERAIKYNTZA



Eraikuntzak
Gremioen koordinaketa
Erreforma orokorrak
Teilatuak

A. Almeida
943 180 372
651 700 439
aiakoerrota@terra.es
ATAUN

egun beteko plana



JATETXEAK

ARTZAIENEA - Beasain	943 16 31 16
AZTIRIA - Gabiria	943 73 36 22
DOLAREA - Beasain	943 88 88 29
KUKO - Ormaiztegi	943 88 28 93
LOINAZ - Beasain	943 88 20 07
MANDIOA - Zerain	943 80 17 05
MANDUBIA - Beasain	943 88 26 73
MARTINEZ - Ordizia	943 88 06 41
MUJKA - Idiazabal	943 18 73 19
OIANGUREN - Ordizia	943 16 13 71
OSTATU - Zerain	943 80 17 99
OTENE - Gaintza	943 88 98 48
OTZAUURTEKO BENTA - Zegama	943 80 12 93
TXINDOKI - Ordizia	943 88 40 49
URBIETA - Ataun	943 18 00 19
URKIOLA - Beasain	943 08 61 31
ZEPAI - Idiazabal	943 18 71 98
JULKI GOZOTEGIA - Beasain	943 88 82 37
UNANUE GOZOTEGIA - Ordizia	943 88 15 51

SAGARDOTEGIAK

MARISQUERIA KORTA - Gabiria	943 88 71 86
OTATZA - Zerain	943 80 17 57
TXIMISTA	943 88 11 28

PENTSIOAK

ITXUNE ** - Ormaiztegi	639 23 88 89
ZEGAMA ** - Zegama	943 80 10 51
ZEZILIOENEA ** - Olaberria	943 88 58 29

NEKAZALTURISMOAK

ALDARRETA - Ataun	943 18 03 66
ARRIETA - HAUNDI - Zegama	943 80 18 90
BORDA - Olaberria	943 16 06 81
LAZKAO ETXE - Zaldibia	943 88 00 44
LIZARGARATE - Lazkao	943 88 19 74
OIHARTE - Zerain	680 17 12 91
ONDARRE - Segura	943 80 16 64
PAGORRIAGA - Beasain	943 80 03 26
TELLERINE - Zerain	943 58 20 71
	943 58 20 31

HOTELAK

CASTILLO *** - Olaberria	943 88 19 58
IGARTZA * - Beasain	943 08 52 40

LANDETXEAK

LIERNIGARAKOA-Mutloa (Lierria)	943 80 16 99
ORUE - Mutloa	943 80 19 00

ATERPETXEAK

SEGURA	943 80 10 10
ZERAIN	943 80 15 05

KOMERTZIOA

ORDIZIAN ELKARTEA - Ordizia	
-----------------------------	--

KIROLAK

MAJORI POLIKIROLDEGIA - Ordizia	943 88 93 33
---------------------------------	--------------

ZER. TURISTIKOAK

ALARPE - Zaldizko ibilbideak	943 88 05 76
ALDABE - Gida Zerbitzuak	943 80 15 05
ARAZI - Gida Zerbitzuak	943 83 36 41



Kalitate turistikoarekin konpromisoa



goierri
bertan duzu

GOIERRI PARKE NATURALA ETA KULTURALA

- IGARTZA, ERTAROKO MULTZOA BEASAIN
- GAZTAREN INTERPRETazio ZENTRUA IDIAZABAL
- ELIKADURA ETA GASTRONOMIAREN INTERPRETazio ZENTRUA-DELIKATUZ ORDIZIA
- GOIERRIKO INTERPRETazio ZENTRUA-DELIKATUZ ORDIZIA
- ZUMALAKARREGI MUSEOA ORMAIZTEGI
- ERTAROKO INTERPRETazio ZENTRUA SEGURA
- EGURRAREN INTERPRETazio ZENTRUA ZEGAMA
- PARKE KULTURALA ZERAIN



EUSKADI
atseden handiz
can mucho gusto



www.goierriturismo.com